



1. Aurrekontuak
2. 2010eko %5aren murrizketa
3. LPDren euskara proba

1. LABek EITBko aurrekontuen proposamenari ezetz esan dio

EITBko Administrazio Kontseiluak atzo atzera bota zituen zuzendaritzak aurkeztutako aurrekontuak. Soilik Zuzendari Nagusiak berak eta EAJ, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariak (9) eman zieten baiezkhoa; EHBILDU, PSE eta Kontsumitzaileen elkarteko (6) ordezkariak abstenitu egin ziren; eta LABekoak eta PPkoak (2) ezezkoa eman zuten. Aurrekontuak onartuak izateko kideen bi herenek eman behar diete baiezkhoa, eta ondorioz ezezkoarekin joango dira parlamentura, non iaz bezala seguruena da EAJk bide-laguna aurkituko duen testua aurrera eramateko, atzoko Urkullu-Mendia bileratik antzematen denaren arabera. Hauek dira LABen arrazoiak aurrekontuak atzera botatzeko:

1.1) Formak

Arrazoi hau nahikoa litzateke berez proposamena atzera botatzeko. Izan ere urtero, zuzendaritza batekin zein bestearekin, bozketa eguna baino lau egun ematen ohi dira aztertzeko. Ostiralean azaldu, eta asteartean bozkatu. LABen iritziz **begirune falta handiegia da langileekiko** berebiziko garrantzia duen aurrekontuen gaia behar bezala lantzeko aukerarik ez ematea.



1.2) Murrizketa orokorra



Egia bada ere iaz aurkeztutako aurrekontuekiko %2ko igoera bat aurreikusten dela (2.800.000€), erreferentzia **2012 urtea hartu ezker**o %33ko murrizketa mantentzen da. Hau da, zuzendaritza eta jaurlaritza honek berak egindako murrizketa mantendu egiten dela, bestelako aukerei bizkar emanez.

1.3) Plantilla globala

Onartu beharra badago ere azken urteetako batez besteko plantillari eutsi egiten zaiola eta irratietan 59 lanpostu egonkortu egiten direla, errealitate berri bati bizkar ematen zaio. Izan ere Internet zerbitzuak emateko kontratatuta zegoen M4F enpresa aurten desagertu, eta bere zerbitzuak EITBNETen barneratuko baitira, eta nahiz eta EITBNETeko soldata-masa hazi kontratazio zuzen berrien eraginez, **ez da agertzen zerbitzu gehigarri hau emateko beharrezkoa litzatekeen plantilla hazkunderik**. Zuzendaritzak ez du gutxieneko plantilla hori bermatzeko asmorik.



1.4) Soldata murrizketa

Eusko Jaurlaritzak 2010ean soldata %5a jaistea eta Madrilek 2012ko gabonetako ordainsaria kentzea erabaki zuenetik, langileok ez dugu bestelako soldata aldaketarik eduki, eta **ez da itzulpenik edota igoerarik aurreikusten datorren urterako ere**. Gogoratu beharra dago Jaurlaritzak 2012ko erabaki hura bere kabuz hartu zuela, Madrilgo dekretuak ez baitzien eragiten enpresa publikoei. Atzo bertan ere Auzitegi Nagusiaren sententzia jaso genuen, zeinaren arabera erabaki hura legez kanpkoa da eta azken erabakia Konstituzionalera bideratzen du. Berriro diogu beraz, hartutako erabaki hura Jaurlaritzak berak konpon dezakeela bere aldetik ere, epaitegien zain egon gabe. Gainera ez soilik bide juridikoak jarraitzen duen ETBko langileen soldatarena, baizik eta EITB talde osoko langile guztiona da konpon dezakeena eta konpontzea exijitzen dioguna. Beti ere 2012ko %5aren murrizketa hura ontzat emango ez balu, eta argi dago aurrekontu hauek irizpide murriztatzaileekin lerrokatuta daudela.



2. Auzitegi Gorenak 2010eko ETBri %5aren murrizketaren auzian langileoi arrazoia ematen digu

Auzitegi Gorenak 2010ean ETBko egindako murrizketen auzian langileoi arrazoia ematen digu, eta azken erabakia Auzitegi Konstituzionalaren esku utzi du

2.1) Aurrekariak

Gogora dezagun 2010eko ekainean Zapateroren gobernuak Estatuko administrazio publiko guztietarako %5eko soldata murrizketaz gain erretiro planetarako (gurean Itzarri) ekarpenak erdira jaisteko dekretua onartu zuela, eta dekretu hura erkidego autonomikoetan egokitu behar zela. Guri dagokigunean, **Patxi Lopezen gobernu autonomikoak dekretu hura aurrerago eraman zuen, eta bere eragina EAEko sektore publiko osora zabaldu zuen**. Argitzearren,



EITBko sozietateak merkantilak diren heinean (S.A.) ez dira "administrazio publiko" bezala jotzen, bai ordea "sektore publiko" delakoaren parte, administrazio publikoekin eta bestelako entitateekin batera. Hau da, Madrilgo gobernuak espresuki sozietate publikoak dekretutik kanpo utzi zituen, eta Lakuakoak egokitzerakoan barne hartu zituen.

2.2) Langileon esku-hartzea

Sindikatuok neurria arbuiatu, eta maila **ezberdinetako mobilizazioak egiteaz gain epaitegira jo genuen**, EAEko Auzitegi Nagusira hain zuzen, non gure salaketa ez zuten onartu. Ondorioz helegitea jartzea erabaki genuen, eta Auzitegi Gorenera jotzea erabaki genuen batera-jotze helegitea jarriz. Denbora luze igarota, **aste honetan bertan jaso dugu autoa, eta arrazoia ematen digu, Lopezen erabakia konstituzioaren kontrakoa izan zela esanez. Hori bai, esan bezala azken erabakia Auzitegi Konstituzionalak hartu beharko du.**



2.3) Eragina soilik Euskal Telebistako langileei



Zoritxarrez bide luzearen emaitza honek soilik ETBko langileoi eragiten digu. Kontua da, gatazka kolektiboak planteatzeko garaian **langile batzordean ordezkaritza handien duen sindikatuak bideratu ohi duela**, noski gainontzeko sindikatuetakoa aholkularitza juridikoekin koordinazioan. ETBko kasuan LAB da lehen indarra, eta LABeko aholkularitza juridikoak eraman du aitzindaritza. EITBNETeko kasuan ordezkaritza sindikala sortu berria da, eta esku-hartze juridikorako aukerarik ez da egon. Irratian eta entean LABek ez du nagusitasuna.

2.4) Hau da itzuli behar digutena


Norberak erreza du kalkulatzea. Nominan argi agertzen da hileroko zenbat kentzen zaigun "8/2010 Dekr.3/2010 Leg.K." lerroan. 2010eko uztailatik hona 51 hilabete igaro dira, beraz aparteko pagak gehituz kalkulua erraza da. Itzarriko ekarpenak ere eguneratu beharko ziren, hori bai, Rajoyk emandako izozte agindura arte. **Eta ondorioz soldata taulak 2010eko ekaineko egoera itzuli beharko ziren.**



2.5) Kendutakoa lehenbailehen itzultzeko exijitzen dugu

LABen ustez ez dugu zertan Konstituzionalak erabakia hartu arte itxaron beharrik. Are gehiago, 2010eko murrizketa ez zen zertan eman behar ez ETBn, ez EITB taldean, ezta Euskal Herriko sektore publikoan, batez ere kontutan edukita neurria Madrildik etorri zela eta Madrilek konpon dezan zain gaudela. Lan harremanetarako euskal esparrua da behin eta berriz aldarrikatzen ari garena.

Horrela, bai EITBko zuzendaritzari eta jakina Eusko Jaurlaritzari langileoi 2010etik hona kendu zaiguna **EITB taldeko langile guztioi itzultzea exijitzen diegu**, eta bidegabekeria amaitu dezatela. Zapatero, Lopez eta Rajoyren neurri neoliberaletan ados ez badago, Urkulluk badu aukera morrontza aitzakiak alde batera utzi eta murrizketa politikak alboratzen hasteko. EITBko aurrekontuak prestatzerakoan arazoa modu negoziatu batean konpontzeko aukera galdu du zuzendaritzak. Halere ziur gaude EAEko aurrekontuak onartzeko garaian EAJk eta PSEk parlamentuan berriro bat egingo dutela murrizketak mantentzeko.



3. LAB Eusko Irratiko eskaintza publikoan euskara probaren inguruan

LABeko ordezkariok harrিতuta gaude abian den Lan Deialdi Publikoaren euskara gaitasuneko proban HABEren zuzenketak argitara atera dituen emaitzekin.

Horiek horrela **LABek bilera eskatu dio HABEri**, zuzenketa honetan zeintzu irizpide izan dituen ezagutu eta emaitzak berraztertu ditzan.

Eusko Irratian dugun ordezkarietaz gain, LAB sindikatuko Euskara Idazkaritzako kideak ere izango dira batzar honetan.

Horraz gain, Eusko Irratiko LABek **dagoeneko LDPren epaimahaia (tribunala) lehenbailehen batzeko eskatu du HABEri** argibideak eskatzeko.



Gogoratu, EITBko LABekin harremanetan jarri eta informazioa lehen eskutik, arin eta zabal jaso nahi baduzu, badakizu non gauden:

Twitter: @labeitb - Facebook: LAB EITB

<http://eitb.labsindikatura.org> – eitb@lab.eus